

NERE LURRA



(ON ANTONIO GRILO NERE ADISKIDE MAITEARI)



Danbolñakin dantzan
Ibilliyak ziran,
Baserri zar artako
Inchaurren azpiyan.

.

Illunabartzen zuen
Ta menditik bera
Gazteriya zetorren
Ni negon aldera,
Irrintziyak botiaz
Ezker-eskuyera,
Lur libre onen jabe
Gaba pasatzera.

Ontan, *Ave María*
Ezkillak jorikan,
Batian gelditurik,
Boinak eskuetan,
Ama guztien Ama
Zuten ezpañetan,
Ondoren asirikan
Zortziko kantetan.

Ta nik, nere begiyak
Intzak bustirikan,
Ta barrendik biyotzak
Pill-pill egiñikan,
Nion, nere artian,
Negon chokotikan:
¡Lur au bezelakorik...
Ez da besterikan!

.

Eta illundu zuen...
Ta baserriyetan...
Kantari zeuden amak
Seask ondoetan
Aurra.. e. gizu.. lo.. ta. looo...
Zuk.. o..rañ.. eta.. nik.. gero...

ANTONIO ARZÁC.

